


EKIALDEKO BARRUTIKO JAIETAN INDARKERIA MATXISTEI AURRE. EGITEKO ESTRATEGIA

JAI BATZORDEENTZAKO GIDA





Aurkibidea

1. SARRERA ETA HELBURUAK.....	5
2. KOKAPEN TEORIKOA	7
3. PREBENTZIOA ETA AURRE PRESTAKETARAKO NEURRIAK.....	11
4. LEHEN ARRETA	13
5. ERANTZUN PUBLIKOA.....	19
6. BEGIRADA BATEAN	22
7. GEHIGARRIAK	25
ZERBITZU ETA BALIABIDEAK.....	25
Larrialdi kasuetan.....	25
Larrialdi egoera ez den kasuetan	26
FESTETAN HAUTEMANDAKO ERASO SEXISTARI BURUZKO INFORMAZIO TXOSTENA.....	30

0



1



2

1.

Sarrera eta helburuak

Donostiako Ekialdeko Barrutiko zenbait jai batzorderekin landutako gida da honakoa.

Jaien testuinguruan indarkeria matxistari lotutako egoeren aurrean jarduteko proposamenak jasotzen ditu, besteak beste. **Dokumentu honen helburua ez da prozedura zehatz bat adostea, ez da protokolo bat; jaien antolaketaren testuinguruan bidelagun izateko GIDA bat da.**

Indarkeria matxisten inguruko ardurazoziala azken urteotan zabalitzen doan zerbait da. Bide honetan, jai batzordeek ere duten erantzukizunari helduz, errealitate honen aurrean erantzuteko prest egotearen beharra izan da lanketa honen oinarria.

Ekialdeko Barrutiko jai batzordeak oso anitzak dira, orokorrean: antolatzen dituzten jardueri dagokionez, antolatzaileen perfilari dagokionez, ibilbide historikoari dagokionez, etab. Abiapuntua hau izanik, helburua ez da izan batzorde guztiek prozedura berdina adostea; bai ordea ortzimuga berdinari begira jartzea eta, pixkana-pixkana, lanketan sakontzen joatea.

Beraz, txosten honek alde batetik, **indarkeriari aurre egiteko estrategian pixkanaka aurreraka urratsak emateko gida bat izan nahi du** (inspirazio moduan). Eta bestetik, **Donostian jaien markoan ematen diren erasoei aurre egiteko existitzen diren baliabideen berri eman nahi du.**

1



2



3

2.

Kokapen teorikoa

Sarri terminologia ezberdinak erabili ohi ditugu indarkeriaren inguruan hitz egiten dugunean: genero indarkeria, indarkeria sexista, indarkeria matxista... Atal hone-tan saioetan adostutako terminologiaren azalpen laburra jasotzen da.

Gainera, indarkeriaz ari garenean, soilik zuzeneko indarkeriaz edota indarkeria fi-sikoaz haratago goazela gogorarazteko, indarkeria moten inguruko azalpen laburra ere egiten da.

ZER DA INDARKERIA MATXISTA?

Emakumeen, neskato eta hetero-arautik irteten diren pertsonen duintasuna, es-timua eta osotasun fisikoa eta mentala sistematikoki kaltetzen duten ekintza edota egoerak dira.

Emakume eta gizonen arteko ezberdin-tasun estrukturalean (genero sisteman) dauka jatorria eta indarkeria matxista ezberdintasun eta ezberdinkeria horren adierazpen bat da. Hau da, emaku-meak eta haiei lotuta eremu edo ezau-garriek sozialki balore gutxiago duenez haien kontrako botere eta indarkeria "baimentzen" eta justifikatzen da. Aldi berean, indarkeria sistemak bere ho-rretan jarrai dezan ere erabiltzen da:

genero bereizketa hori mantentzeko, eta hala, genero sistemak ezarritako arauetatik irteten den guztia edo sis-tema hori zalantzan jartzen duen guztia zigortzeko.

Gainera, aipatu behar da indarkeria matxistatzat jotzen dela ere emaku-meek babesten edo bere kargu dau-den pertsonen aurka egiten den in-darkeria ere, hau da, haien hurbileko ingurunean edo ingurune afektiboaren aurka, bereziki seme-alaben edo beste senide batzuen aurkakoa, emakumea atsekabetzeko borondatez.

KONTZEPTU BATZUK ARGITZEN:

Hau esanda, sarri indarkeria hau izendatzeko hainbat kontzeptu ezberdin erabiltzen dira (emakumeen aurkako indarkeria, genero indarkeria, indarkeria sexista, indarkeria matxista...), hauek argitzeko asmoz, hemen argibide batzuk:

~ INDARKERIA SEXISTA:

Emakumeek emakume izateagatik jasaten duten indarkeria litzateke, emakumeen aurkako indarkeria bezala ere izendatu daiteke. Honako indarkeria motak barne hartzen ditu:

Genero-indarkeria: harreman afektibo baten baitan, edo harreman hori egon den kasuetan, hau da, bikotekide edo bikotekide ohi baten partetik emakumeen aurka ematen den indarkeriari

egiten dio erreferentzia.

- Sexu-indarkeria
- Familia barruko sexu-indarkeria
- Lan-esparruko sexuan oinarritutako edo sexu jazarpena

~ INDARKERIA MATXISTA:

Genero-rol bitarrei eta sexualitate normatiboari erantzuten ez dieten pertsonen jasaten dituzten indarkeriak. Barne hartzen ditu ere indarkeria sexista ez ezik honako indarkeria motak ere:

- Transfobia
- Lesbophobia
- Homofobia
- Genero barneko indarkeria

INDARKERIA MATXISTA MOTAK:

Indarkeria matxistak aurpegi anitz ditu, askotariko adierazpen/abusuetan gautzen baita. **Hainbat indarkeria mota** bereizten dira, askotan elkar lotuta edo gurutzatuta ematen diren arren: indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala eta ekonomikoa.

arriskua dakartzan nahitako ekintzak.

Honako jokabideak lirateke: kolpeak, iletik tiratzea, bultzakadak, estutzeak, atximurkak, urradurak, erredurak, hozkadak, itotzeko ahalegina, arma zuria edo su-armak erabiltzea bere aurka...

~ INDARKERIA FISIKOA:



Emakume baten gorputzaren aurkako indarkeriazko ekintza edo, egin behar denean, indarrezko ekintza ez egitea, lesio fisiko bat edo

kalte bat eragiteko arriskua dakarrena. Hau da, osotasun fisikorako kaltea edo

~ INDARKERIA PSIKOLOGIKOA:



Osotasun psikikorako kaltea edota arriskua dakartzen nahitako ekintzak (jokaerak edo hitzak).

Honako jokabideak lirateke: balio-galtzeak (kritikak, umilazioak, deskalifikazioak, barregarri

uztea...), irainak, mehatxuzko jarrerak, berari edo beste senide batzuei heriotza mehatxuak, adingabeen zaintzari edo jagoletzari buruzko mehatxuak, suizidio-mehatxuak, murritzeta-jokabideak (lagunen kontrola, lagun eta senideekin harremanak izateko eragozpena, etxetik irtetea murritzeta), etxetik kanporatzea, jokabide suntsitzaileak (balio ekonomiko edo afektiboa duten ondasun pertsonalak suntsitzea)...

~ **INDARKERIA SEXUALA edo SEXU INDARKERIA:**



Edozein ekintza sexual adostu gabea edo bizitza sexualaren garapen askea baldintzatzen duena, edozein eremu publiko edo pribatuan, eremu digitalean barne.

Honako jokabideak lirateke: txiste eta sexu-txantxak, telefono-dei edo mezu iraingarriak, exhibizionismoa, bortxaketak, genitalen mutilazioa, sexu-erasoak, haurdunaldi behartua, sexu-esplotazioa helburu duen trata, biktimak umiliagarritzat jotako jokabideak...

Azken urteetan, teknologien hedapena dela eta eremu digitalean egiten diren sexu-indarkeriak ere indar handia hartu dute, beraz, eremu digitalean ematen diren jokabide hauek ere sexu-indarkeria gisa kontsideratzen dira: sexu-indarkeriako ekintzen zabalkundea, baimenik gabeko pornografia, haur-indarkeria eta sexu-estortsioa birtarteko teknologikoen bidez...

~ **INDARKERIA EKONOMIKOA:**



Emakume baten eta, hala badagokio, haren seme-alaben ongizate fisiko edo psikologikorako baliabideak nahita eta justifikaziorik gabe kentzea, eta familiak edo, bikotean, baliabide propioak edo partekatutak erabiltzea mugatzea.

Honako jokabideak lirateke: kontuetarako sarbidea eragozteak, dirua atxikitzea, ondasun komunetan parte har dezan eragozteak edo mugatzea, xantxia ekonomikoa, lanpostu bat edo hezkuntza eskuhartzea eragozteak, jabetza-eskubideei uko egitea, seme-alabei mantenu-pentsioak ez ordaintzea...

~ **INDARKERIA BIKARIOA:**



Amaren aurkako kolpe konponezina, indarkeria seme-alaben aurka egiten da amari kalte egiteko, seme-alabeei eraso eginez. Seme-alabak hartzea emakumeen aurkako tratu txarrekin edo indarkeriarekin jarraitzeko objektu gisa. Batzuetan indarkeria hori emakumeentzat garrantzitsua den beste pertsona baten aurka egiten da, are maskoten aurka. Azken helburua emakumeari kaltea egitea da, min gehien ematen dion horretan jotzea.

2



3



4

3.

Prebentzioa eta aurre prestaketarako neurriak

Prebentzioaren inguruan hitz egiten dugunean aurreikusitako arrisku egoera bat eman ez dadin prestatzeaz ari gara. Esparru honetan, inspirazio moduan, honako ekintza sorta hau osatu dugu:



INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO MEZUAK ETA JAI BATZORDEAREN POSIZIONAMENDUA ADIERAZI:

Kartelak, pankartak, kuñak, difusio mezuak, puntu moreak, pegatak... argi uzteko espazio horretan ez dela eraso matxistarik onartuko.



JAIGUNE SEGURUAK SUSTATU:

Giroa guztiontzako seguru eta atsegina izateko elementuak kon-tuan izan (programatzen dena, musika, egoteko moduak...) edo "puntu ilunak" izan daitezkeen identifikazioa eta horiek "argitzeko" ekintzak.



KASUREN BATEN AURREAN NOLA JARDUN PREST EGOTEA:

Jai batzordearen baitan arduradunak adostea. Eta honekin lotuta:

- Prozedura ezagutzen dutela ziurtatzea
- Nola identifikatuko diren zehaztea (besoko morea...)
- Nola koordinatuko diren adostea (whatsapp talde bat...)



PROTOKOLOA BADAGO:

Bere berri eman eta jarraitu beharreko irizpide argiak sozializatzea: orokorrean eta antolakuntzan parte hartzen duten beste eragileen artean ere (tabernariak...).

3



4



5

4.

Lehen arreta

Eraso baten berri dugun lehen momentu horretan ematen da LEHEN ARRETA.

1. Lehenengo urratsa emakume horren **segurtasuna eta lasaitasuna bermatzea** izango da.
 - **Espazio seguru** batera joatea eskainiko diogu (ahal dela, aurretik prestatua egongo da espazio hau)
 - **Gertuko norbaiti deitzeko aukera** eskainiko diogu.
2. Emakumearekin batera **baloratu** eta **erabaki** zer egin nahi duen. Emakumearen erabakia errespetatuko duen laguntza eskainiko diogu.

LEHEN MOMENTU HONETAN KONTUAN HARTZEKO GOMENDIO ETA JARRAIBIDEAK:

- **BORTXAKETA** kasuetan, ez garbitzea, ezta arropaz aldatzea ere, gomentatuko diogu, salaketarako frogak bere horretan jarraitzea garrantzitsua delako. Aho bidezko erasoak izan bada, ez jan eta ez edatea gomendatu, horrek frogak deuseztu bait ditzake¹.
- Erasoren arabera, **ESKU-HARTZEA EZBERDINA** izango da. Horregatik, kasuan kasu, egoera aztertu, dauden aukerak ezagutu eta baliabideak aktibatu behar dira.
- **ERASOA JASAN DUENA ETA BERE ONGIZATEA BETI ERDIGUNEAN:** zer behar duen galdetuko diogu eta bere nahia errespetatuko dugu (Kontuz salbaitzailearen rolaekin!).

¹ Bortxaketen kasuan mediku forentseak lagin biologikoak hartu behar ditu, nahiz eta momentuan emakumeak erabaki ez duela salaketa jarri nahi, lagin horiek gordeko dira uneren batean salatzea erabakitzen badu erabiltzeko.

- Erasotua **BABESTU, EZ JARRI ZALANTZAN** eta **EZ EPAITU**.
 - Ez moztu, lasai adierazten utzi
 - Ez epaitu gertatutakoa edo sentitzen duena, eta inolaz ere ez justifikatu gertatutakoa
 - Ez sentiarazi errudun eta erruduntasun sentimendua badu hori desegiten saiatu: erasoak eta indarkeria politizatu!
 - Biktimizazioa ekidin: biktima ez berriz biktimizatu.
- Eskura dituen **ZERBITZU ETA BALIABIDEEN INFORMAZIO ARGIA** eman (ikusi eranskinetan).
 - Existitzen diren baliabideen berri eman (edo hauek non jaso dezaketen esan edo helarazi) eta erabakiek dauzkaten ondorioak ere kontutan hartu ditzan.
 - Kontuz informazio gehiegirekin agobiatu gabe!
- Protokoloren bat edo jarduteko irizpideren bat badugu horren inguruan eta dauden aukeren inguruan **INFORMATU**.
- Erasotua izan denaren **ANONIMOTASUNA BERMATU** behar da. Kontuz bere anonimotasuna arriskuan jartzen duten informazio edo ekintzekin.
- **ZURRUMURRUAK SAIHESTU ETA MOZTU** behar dira. **MORBOA EKI-DIN**, gertatutakoaren inguruko zehaztapenak ez dute inporta.
- Izan kontutan prozesuak erasotua izan denarentzat **AHALIK ETA AHAL-DUNTZAILEENA** izaten saiatu behar gara.
 - Erasoren ondorioz sortu diren zauriak eta minak ez handitzeko neurriak hartu behar dira.
 - Erasoa bizi izan duen pertsonaren balizko berrosatzeko prozesua babes-tea garrantzitsua da.
- Kontuan izan **OPERATZEN DUTEN BESTELAKO ZAPALKUNTZAK** (arrazaz, jatorria, adina, klasea, identitatea...)
 - Erasoa justifikatzen dutenak
 - Erasotua epaitzen dutenak
 - Erasotzailea neurritz kanpo egurtzea...

BALORAZIOA

Emakumearekin batera baloratu eta erabaki zer egin nahi duen. Emakumearen erabakia errespetatuko duen laguntza eskainiko diogu.

LARRIALDI KASU BAT DA:



Larrialdi-egoeran, berehalako erantzunik jaso ezean, arriskuan jartzen da pertsonen osotasun fisikoa edo psikikoa

- 1. Berarekin egon larrialdiko langileak iritsi arte.**
- 2. Emakumearen eskura dauden URGENTZIAZKO zerbitzuak (24/365)**
 - **HARIBERRIA: 900 840 188**
(sexu indarkeria pairatu duten emakumeei eta bere ingurukoei atentzio integrala)
 - **SFCUS: 943 224 411**
(Gizarte larrialdiak, eraso eman eta 48 ordu pasa arte ematen du arreta)
 - **Udaltzaingoa 092**
 - **SOS deiak 112**
(Ertzaintza ere aktibatuko dute bertan)
- 3. Informazioa eskaini:** urgentzia atenditua dagoenerako informazioa eman. Begiratarria ez den kasuetarako "2. Informazioa eskaini" puntuan jasotakoa.
- 4. Prozesuari itxiera eman:**
 - Lehen harrera egin duten emakumeak gera daitezke emakumearekin horrela eskatzen badu eta bestela beraien lana amaitutzat emango da.
 - Berdintasun sailari erasoaren berri ematea (eta erasorik ez badago ere berau komentatzea gomendatzen da).



EZ DA LARRIALDI KASU BAT:

1. **Berarekin egon**, behar duen arte (laguntza duen arte edo etxera lagundu, etab).

2. **Informazioa eskaini:**

- **HARIBERRIA: 900 840 188 (24/365)**
(sexu indarkeria pairatu duten emakumeei eta bere ingurukoei atentzio integrala)
- **Donostiako Gizarte Ekintza: 943 481 400**
(astelehenetik ostiralera, 9:00-14:00)
- **Donostiako Emakumeen etxea: 943 483 470**
(astelehenetik ostiralera, 9:00-21:00. Abuztuan goizez soilik)
- **SATEVI: 900 840 111**
(telefono bidezko informazio eta arreta espezializatua (24/365, hizkuntza ezberdinetan)

Zerbitzu hauetarako eskubidea du (salaketa gabe ere, egoera irregularrean ere):

- Laguntza psikologikoko zerbitzua
- Arreta sozio-juridikoko zerbitzua
- Abegi etxeak (genero indarkeria kasuetan)
- Diru-laguntzak (genero indarkeria kasuetan)

PROZESUARI ITXIERA EMATEKO:

1. Lehen harrera egin duten emakumeak gera daitezke emakumearekin horrela eskatzen badu eta bestela beraien lana amaitutzat emango da.
2. Berdintasun sailari erasoaren berri ematea (eta erasorik ez badago ere berau komentatzea gomendatzen da).

ERASOTZAILEAREKIN ZER?

Larritasunaren eta dagoen gaitasunak baldintzatuko badu ere, argi izan behar dugu jai batzordeen ardura ere badela espazio horretan **segurtasuna bermatzea**. Gainera, antolakuntzatik **posizionamendua eta erasoak onartzen ez direla adieraztea estrategikoa da**.

Beraz, kasu honetan jai batzorde bakoitzak erabaki beharko luke. Hemen jasotako zenbait aukera:

- Espazio horretan jarrera horiek onartzen ez direla adierazi
- Espazioan ongietorria ez dela adierazi eta joatera gonbidatu/bota
- Erasotzailea interpelatu edo espaziotik botatzeko hautua egiten bada, kontuan izan: taldean egitea (ahalik eta babes handiena izateko) eta kontuz anonimotasunarekin (agian erasotuarena ere arriskuan jar baitezake) eta ahal den neurrian saiatu kanporatua izaten ari den momentuan beste-lako erasorik jasotzen ez dituela (eraso arrazistak, kasu)

Kasu hauetarako komeni da zein erasoren aurrean (larritasuna, maiztasuna, errepikagarritasuna...) nola jardungo dugun erabaki eta adostuta izatea. Erantzuna edo ekintza proportzionala izatea komeni da.

KONTUZ!

- Salbatzaile rolaekin
- Erasotuaren iritzia ahalik eta gehien kontuan izan, batik bat bere segurtasuna arriskuan ez jarri eta prozesua ahalduntzailea dela bermatzeko.

4



5



6

5.

Erantzun publikoa

Erasoaren larritasunak eta erantzuteko dagoen gaitasunak eragina izango badu ere, **garrantzitsua da gaitzespen mezua zabaltzea**, antolakuntza moduan, baita gizarte moduan ere, erasorik onartuko ez dela adierazteko.

Komeni da, ahal den neurrian, erantzun publikoaren zehaztapenak aurrez ahalik eta adostuena izatea (noiz aterako garen, ze erantzun mota emango dugun kasu bakoitzaren aurrean...). Posible den kasuetan, erasotua izan denarekin koordinatuta (bere oniritzia izanda) jardutea.

Hona hemen zenbait proposamen:

Eraso baten berri daukagunean, **momentuan**:



- Musika gelditu eta gaitzespen mezua zabaltzea (aurretik prestatutako kuñak)
- Irakurketak
- Edariak zerbitzeari uztea
- ...

Erasoren bat gertatu **ostean** (hurrengo egunetan):



- Elkarretaratzea
- Manifestazioa
- Gertatutakoaren irakurketa egin eta zabaltzea
- Gaitzespen mezuak zabaltzea
- Jaiak bertan behera uztea edo egitarauko zerbait

Salaketa publikoa egiterako orduan, komeni da zenbait irizpide kontuan hartzea:



- Emakumeak **nahi** izatea
- **Anonimotasuna** bermatzea
- Erantzuna **proportzionala** komeni da
- Indarkeriaren **izaera estrukturalan** fokoa jarri²

Salaketaz gain, bestelako **laguntza edo babes neurri/ekintzak** eskaini (erreparazioa), beti ere, erantzuteko gai izango bagara (kontuz esperantza faltsuekin eta salbatzaile rolaekin).

Aldi berean, komeni da baita ere, jada erantzunen bat adostu badugu, beharko den **materiala** aldeztu aurretik prest izatea. Hala nola:

1. Pankarta
2. Testua
3. Erasoaren berri zabaltzeko materiala...

Azkenik, interesgarria da ematen diren erasoen jarraipena egin ahal izateko, Donostiako Udaleko **Berdintasun Teknikariari** jaietan zehar emandako gertakarien berri ematea. Honetarako, FESTETAN HAUTEMANDAKO ERASOEI BURUZKO INFORMAZIO TXOSTENA osatzea komeni da (ikus gehigarria).

² Eraso matxista baten subjektua emakumea bera bada ere, indarkeriak izaera estrukturala duen heinean, gizarteari ere badagokio honen aurrean posizionatzea.

2





6



7

6. Begirada batean





O



o



Q

7.

Gehigarriak

ZERBITZU ETA BALIABIDEAK

LARRIALDI KASUETAN

Larrialdi egoera kontsideratuko da berehala erantzun edo neurriak hartu ez ezean, pertsonaren edo bere ingurukoen osotasun fisiko edota psikologikoa arriskuan badago. Ez badu presazko erantzun bat eskatzen ez da larrialdi kontsideratuko!

LARRIALDIAK: 112

Zenbakia: **112**

Ordutegia: **24 ordu eta 365 egun**

Erasoa jasan duenak zauri fisiko larriak baditu edo sexu eraso bada, edo bere segurtasuna ez badago bermatua: **112 SOS larrialdiak** telefonora deitu behar da. Bertatik beharrezko zerbitzu guztiak koordinatzeaz arduratzen dira (osasun-zerbitzuak, segurtasun-zerbitzuak...).

ADI! Kasu hauetan Ertzaintza aktibatuko da.

Sexu erasoen kasuan garrantzitsua da egon daitezkeen frogak ez galtzeko honako oharrak:

- Ez duxatu eta ez aldatu arropaz.
- Aho bidezko eraso izan bada ez jan edo edan ezer.

Gogoratu bortxaketen kasuan mediku forentseak lagin biologikoak hartu beharko ditu, nahiz eta momentuan emakumeak erabaki ez duela salaketa jarri nahi, lagin horiek gordeko dira uneren batean salatzea erabakitzen badu erabiltzeko.

Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua (GLFZ/SFUS):

Zenbakia: **943 224 411**

Ordutegia: **24 ordu eta 365 egun**

(eraso eman eta hurrengo 48 ordutara ere atenditzen du)

Gipuzkoan indarkeria matxista jasaten duten emakumeen urgentziatzeko beharrei erantzuten die Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzuak. Gizarte Zerbitzuen lan ordutegitik kanpo baliabide honetara joko da. Lehen balorazioa egin ostean, emakumea dagokion baliabide eta zerbitzuetara bideratzen dute.

HARIBERRIA sexu indarkeria arreata integrala emateko Gipuzkoako foru zerbitzua

Sexu indarkeria sufritu duten emakume eta emakume horren inguruko pertsonen zuzendutako zerbitzua da.

24 ordu eta 365 egun

Zenbakia: **900 840 188**

Ordutegia: **24 ordu eta 365 egun**

Aurrez aurrekoa: Kale berria, 10 (Gros, Donostia)

Harremanetarako: **hariberria@gipuzkoa.eus**

www.gipuzkoa.eus/eu/web/hariberria

LARRIALDI EGOERA EZ DEN KASUETAN

Saiatu emakumea informazio askorekin ez larritzen, ziurrenik ez dago informazio gehiegi barneratzeko moduan. Dena den, garrantzitsua da indarkeria matxisten kasuetarako baliabideak eskaintzen dutena ongi azaltzea. Hemen egin-kizun hauetan laguntzeko hainbat baliabide:

SATEVI: INFORMAZIO- ETA ARRETA-ZERBITZU ESPEZIALIZATUA:

Zenbakia: **900 840 111**

Ordutegia: **24 ordu eta 365 egun**

Eraso bat jasan duten **emakumeak artatu eta eskura dituzten baliabide zein zerbitzuez informatzeko 24 orduko telefono-zerbitzua** da SATEVI.

Zerbitzuak 51 hizkuntzatan erantzuten du, eta prestatuta dago entzuteko edota hitz egiteko desgaitasuna dutenak artatzeko, EAE mailako baliabide honetan, biktima diren emakume guztiak artatzen dira eta, baita ere, emakume horien inguruko senideak eta gertukoak, edo informazioa eta aholkularitza eskatzen duten profesionalak.

Zerbitzua berehalakoa da, **anonimoa, konfidentziala eta doakoa**, eta ez du arrastorik uzten telefono-fakturan.

DONOSTIAKO GIZARTE EKINTZA_Indarkeria Matxistaren Biktimak Artatzeko Zerbitzua (IMBAZ)

Zenbakia: **943 481 400**

Ordutegia: **astelehenetik ostiralera / 9:00-14:00**

Donostiako Udaleko zerbitzu honek informazioa eta laguntza eskaintzen du indarkeria matxistaren biktimentzat (salaketa gabe ere). Honako zerbitzuak eskaintzen ditu:

- **Harrera, diagnostikoa eta orientazioa:** harrera egin, beharrak diagnostikatu eta esku hartzeko plan baten barruan beharrezkoak diren baliabideak eskaini.
- **Laguntza psikologikoa**
- **Larrialdiko diru-laguntzak:** Oinarrizko premiei erantzuteko baliabide ekonomikoak eskaintzen ditugu, beste baliabide batzuk berehala eskuratu ezin dituzuenengan.

Beharrezkoa den beste sail edo eragilerekin (Berdintasuna, Udaltzaingoa, Er-tzaintza...) koordinatuko da eta beste edozein zerbitzu ere aktibatzeko bidea izango da, hala nola laguntza psikologikoko zerbitzua, arreta soziojuridikoko zerbitzua, abegi etxeak edota diru-laguntzak.

HARIBERRIA sexu indarkeria arreta integrala emateko Gipuzkoako foru zerbitzua

Sexu indarkeria sufritu duten emakume eta emakume horren inguruko pertso-nei zuzendutako zerbitzua da.

Zenbakia: **900 840 188**

Ordutegia: **24 ordu eta 365 egun**

Aurrez aurrekoa: Kale berria, 10 (Gros, Donostia)

Harremanetarako: **hariberria@gipuzkoa.eus**

www.gipuzkoa.eus/eu/web/hariberria

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

Zenbakia: **943 483 470**
Ordutegia: **astelehenetik ostiralera** (abuztuan goizez soilik)
9:00 – 21:00

Emakumeentzako ahalduentze-gune bat da, ekintzarako eta hausnarketarako. Zerbitzu komunitario bat da emakume elkarte batek eta Udaleko Berdintasun Sailaren lankidetzaren bitartez kudeatzen dena. Udaleko Berdintasun Saila ere bertan kokatzen da eta bertan eskaintzen ditu hainbat zerbitzu.

Honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Arreta eta bideratzea.
- Aholkularitza juridikoa.
- Laguntza psikologikoa.
- Gazteentzako aholkularitza.

Hainbat ahalduentze-talde ere badaude:

- Taldeko laguntza psikologikoa.
- Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeak.
- Jatorri ezberdinetako emakumeentzako kulturarteko gunea.
- Desgaitasuna duten emakumeak.
- Neska gazteentzako taldea.

Gizarte-zerbitzuekin koordinatuta daude, eta beharrezko bada, eta emakumeak ahal nahi badu, indarkeria matxista jasaten ari den emakumea gizarte-zerbitzuetara bideratuko du.

BERDINDU: LGTBI+ INFORMAZIOA ETA ARRETA

Zenbakia: **943 216 551**

Lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualei eta haien ingurukoei informazioa eta arreta emateko Eusko Jaurlaritzaren zerbitzua da Berdindu. Hezkuntza-komunitatearekin, eragile sozial eta profesionalekin, komunikabideekin eta,

oro har, gizarte osoarekin ere lan egiten dugu, LGTBIfobia ezabatzeko eta LGTBI pertsonen eskubideak eta askatasunak erabat gauzatzeko egon daitezkeen oztopoak kentzeko.



FESTETAN HAUTEMANDAKO ERASO SEXISTARI BURUZKO INFORMAZIO TXOSTENA

Erasotuaren erabakiak errespetatzea ezinbestekoa da, beraz, ahal den neurrian emakumearekin ere adostuko da pairatu duen erasoaren berri eman edo ez, eta nola. Dena den, anonimotasuna beti ere bermatuko da, eta oinarrizko informazio hau jasoko da:

Fitxa bete duen erakundea: _____

Data: _____

NOIZ GERTATU DA?

Zein egunetan, ordutan...

NON PASATU DA?

Tabernan?
Etixerako bidean?
Beste nonbait?

ERASOAREN EZAUGARRIAK:

Sexu eraso
Indarkeria fisikoa
Taldeko eraso
Sumisio kimikoa
Besteak

ZEIN ARRERA JASO DUZU?

BESTE INDARKERIEKIN LOTUTA BADAGO

(arrazismoa, LGTBfobia, etab)

Txostena kontaktu honetara bidali:

Ana Txurruka, Donostiako Udaleko Berdintasun Saileko teknikaria:
Tel.: **943483466 / 630934994** Emaila: **ana_txurruka@donostia.eus**

PROIEKTUAREN LIDERGOA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ekialdeko Barrutia
Distrito Este



PROIEKTUAREN DINAMIZAZIOA



FARAPI KOOP.

943 00 35 85

info@farapi.com / www.farapi.com

**Mundaiz bidea 10, 23.bulegoa 20012
Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)**

